

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Korporazioko kideak talde organoetara joatearen araubide ekonomikoa

2019ko ekainaren 27ko osoko bilkura berezian, erabaki hau hartu zen:

6. Korporazioko kideak talde organoetara joatearen araubide ekonomikoa zehaztea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, "Ez arduraldi eksklusiborik ez arduraldi partzialik ez duten toki-korporazioko kideek baino ez dituzte jasoko beren korporazioko kide anitzeko organoetako bilkuretara benetan joatearren dagozkien laguntzak, korporazioko osoko bilkurak adierazitako kopurukoak"

Horiek horrela, udal korporazioak, aho batez, zera, erabaki du:

1. Udal korporazioaren talde organoen bileretara joatearren ordainsaririk ez ezartzea: udalbatza, irizpen batzordeak, kontratazio mahaia. Korporazioko kideak korporazioaren talde organoen bileretara joateko ibilgailuan egindako kilometroengatik baino ez dute ordainsaria izango.

2. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea, denek jakin dezaten.

Legutio, 2019ko ekainaren 28a

Alkatea

CÉSAR FERNÁNDEZ DE GAMARRA EGURROLA